

754/2014, EBAZPENA, apirilaren 24koa, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendari Gerentearena. Honen bidez, lan-zerrendak osatzeko epea zabaltzen da Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean **LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA, (ZITOGENETIKAKO PROFILA)** lanpostua aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuaren 79. artikulua, 2007-2009 urteetarako lan baldintzei buruzko Akordioaren Bitariko Batzorde Paritarioaren Akordioak eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiak ezarritakoari jarraiki, honako deialdi Ebazpena ematen da aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez honako lanpostu hau betetzeko:

LANPOSTU FUNTZIONALAREN IZENDAPENA:
Laborategiko Teknikari Espezialista,
ZITOGENETIKAKo profilarekin.

DESTINOA: Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea.

BETEKIZUNAK:

ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENENKO ESKATZAILEAK

- Osakidetzako Zerbitzu - erakundeei atxikitako karrerako funtzionario, langile estatutario edo lan-kontratudun langile finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berdinekoa edo beheragokoa izatea.
- Osakidetzako edozein Zerbitzu-erakundetara atxikita egotea.
- Finkoa ez izatea lortu nahi den kategorian.
- Laborategiko Teknikari Espezialista kategorian beharrezkoa den titulazioaren jabe izatea eta ZITOGENETIKA arloan jarduteko deialdi honek zehazten duen profila egiaztatzea.
- Kategorian berean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebetetik gora etenik gabe eman izana.

ZERBITZU-EGINKIZUNETAKO ESKATZAILEAK

- Osakidetzako zerbitzu-erakundeei edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuei atxikitako karrerako funtzionario, langile estatutario edo lan-kontratudun langile finkoa izatea **LABORATEGI TEKNIKARI ESPEZIALISTA** kategorian/lanpostu funtzionalean.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta interesdunak ez eskatzea jabetzan edo zerbitzu aktibora itzultzeagatik behin-behineko atxikipenean duen lanpostuaren zerbitzu-erakunderako,

RESOLUCIÓN 754/2014, de 24 de abril, del Director-Gerente del Hospital Universitario Cruces por la que se abre el plazo para la confección de listas para su provisión mediante Promoción Interna Temporal y Comisión de Servicios de una plaza de **TECNICO ESPECIALISTA DE LABORATORIO CON PERFIL DE CITOGENETICA** en el Hospital Universitario Cruces.

De conformidad con lo establecido por el artículo 79 del Decreto 235/2007, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el Acuerdo de la Comisión Mixta Paritaria del Acuerdo de condiciones de trabajo 2007-2009 y en el Acuerdo de Consejo de Administración de Osakidetza de 9 de mayo de 2011, se procede a dictar la presente Resolución de convocatoria para la provisión, mediante promoción interna temporal y comisión de servicios el puesto:

DENOMINACIÓN DEL PUESTO FUNCIONAL: Técnico Especialista de Laboratorio, con perfil de **CITOGENETICA**.

DESTINO: Hospital Universitario Cruces.

REQUISITOS:

PARA LOS SOLICITANTES DE PROMOCION INTERNA TEMPORAL

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo, adscrito a las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.
- Estar en servicio activo y pertenecer a una categoría del mismo nivel de titulación o de nivel inferior que aquella a la que se opta.
- Estar adscrito a cualquier Organización de Servicios de Osakidetza.
- No ser fijo en la categoría a la que se opta.
- Estar en posesión de la titulación requerida para el acceso a la categoría de Técnico Especialista de Laboratorio y acreditar el perfil establecido en esta convocatoria para trabajar en el área de la **CITOGENETICA**.
- Si está en promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en esta situación.

PARA LOS SOLICITANTES DE COMISION DE SERVICIOS:

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de servicios de Osakidetza o del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de **TECNICO ESPECIALISTA DE LABORATORIO**.
- Estar en servicio activo y efectuar solicitud para la cobertura de puestos en Organización de servicios distinta de la que el/la interesado/a tenga plaza en propiedad o se encuentre

beste baterako baizik.

- ZITOGNETIKA arloan jarduteko deialdi honek zehazten duen profila egiaztatzea.
- Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuko eta Osakidetzako Euskara Planeko gainontzeko baldintzak.

ZITOGNETIKA ARLOAN BETEBEHARREKO PROFILA

9 hilabetetik gorako esperientzia (agirien bidez egiaztatua) ondoko teknikak erabiltzen:

1. **Zelula-hazkuntzen** prestaketa. Egoera bakoitzari dagokion protokoloa ezagutzea
2. Sakrifizio-prozesua ezagutzea (zelulak metafasean ateratzea) **kromosomak lortu eta luzatzeko.**
3. Kromosomen **banda-teknikak ondo ezagutzea.**
4. Mikroskopiaren bidezko azterketa kromosomikoa **ondo ezagutzea.** Giza kromosomak ikusi, identifikatu eta zuzen ordenatu, morfologia-ezaugarri eta banda-ereduen arabera.
5. **Kariotipo normalaren** ezagutza
6. Zenbakizko eta egiturazko **anomalia kromosomikoen identifikazioa.**
7. **Zitogenetika molekularreko tekniken ezagutza** (in situ hibridazio fluoreszentea).

MERITUEN BAREMOA:

BARNE-SUSTAPENEKO ESKATZAILAK

- Oposizioaldia: (100 puntu gehienez). Aintzartutako izangaiek 2008ko EPEn lortutako puntuazioa.
- Lan esperientzia: (60 gehienez).
 - a) E taldean egindako zerbitzuak, 0,11 puntu hilabete bakoitzeko
 - b) D taldean egindako zerbitzuak, 0,13 puntu hilabete bakoitzeko.
 - c) C taldean egindako zerbitzuak, 0,21 puntu hilabete bakoitzeko
 - d) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak, 0,33 puntu hilabete bakoitzeko.
- Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena. (gehienez 20 puntu). 2008ko EPEko lehiaketaldirako aurreikusitakoaren arabera.
 - a) Gradu aurreko prestakuntza (gehienez 8 puntu).
 - Ohorezko matrikula bakoitzeko: 0,80 puntu.
 - Bikain bakoitzeko: 0,53 puntu
 - b) Etengabeko prestakuntza (gehienez 20 puntu). Eskatutako destinoaren kategoriarekin lotutako ikastaroetan parte hartzeagatik:
 - 9 ordura arte: 0,33 puntu.
 - 10 - 19 ordu: 0,67 puntu.
 - 20 - 29 ordu: 1,33 puntu.
 - 30 - 49 ordu: 2 puntu.
 - 50 - 99 ordu: 2,67 puntu.

adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

- Acreditar el perfil establecido en esta convocatoria para trabajar en el área de la CITOGNETICA.
- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

PERFIL REQUERIDO PARA EL AREA DE CITOGNETICA.

Experiencia documentada superior a 9 meses en la realización de las siguientes técnicas:

1. Preparación de **cultivos celulares.** Conocimiento de los protocolos adecuados en cada caso.
2. Conocimiento del proceso de sacrificio (extracción de células en metafase) que permite la **obtención de cromosomas y su extensión.**
3. Dominio de las **técnicas de bandeado** cromosómico.
4. Dominio del **análisis cromosómico al microscopio.** Visualizar, identificar y ordenar correctamente los cromosomas humanos según características morfológicas y patrones de bandeado.
5. Conocimiento del **kariotipo normal.**
6. Capacidad de **identificación de anomalías cromosómicas** numéricas y estructurales.
7. Familiarización con las técnicas de **citogenética molecular** (técnica de hibridación fluorescente in situ).

BAREMO DE MÉRITOS:

PARA LOS SOLICITANTES DE PROMOCION INTERNA

- Fase de Oposición (máximo 100 puntos). Se tendrá en cuenta la puntuación obtenida por los aspirantes en la fase de oposición de la OPE 2008.
- Experiencia Profesional (máximo 60 puntos).
 - a) Servicios prestados por personal en el grupo E: 0,11 puntos/mes.
 - b) Servicios prestados por personal en el grupo D: 0,13 puntos/mes.
 - c) Servicios prestados por personal en el grupo C: 0,21 puntos/mes.
 - d) Servicios prestados en el mismo puesto al que se opta: 0,33 puntos/mes
- Formación, docencia y difusión del conocimiento (máximo 20 puntos). En los términos previstos en las fases de concurso de la OPE 2008.
 - a) Formación pregrado (máximo 8 puntos).
 - por cada Matrícula de honor: 0,80 puntos.
 - por cada sobresaliente: 0,53 puntos.
 - b) Formación continuada (máximo 20 puntos). Por la asistencia a cursos relacionados con la categoría del destino solicitado:
 - Hasta 9 horas: 0,33 puntos.
 - 10 a 19 horas: 0,67 puntos.
 - 20 a 29 horas: 1,33 puntos.
 - 30 a 49 horas: 2 puntos.
 - 50 a 99 horas: 2,67 puntos.

- 100 - 199 ordu: 4 puntu.
- 200dik gora: 5,33 puntu.

Ikastaroen egiaztagirietan kreditu-kopurua bakarrik agertzen denean, 0,67 puntu aitortuko dira kreditu bakoitzeko.

d) Irakaslanak (6,67 gehienez puntu).

- Irakaslanak etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan: 0,03 puntu/orduko.

e) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (6,67 gehienez puntu). Eskatutako destinoaren lanpostu funtzionalarekin zerikusia dutenak.

- Ponentzia bakoitzeko: 1,33 puntu.
- Ahozko komunikazio/Poster bakoitzeko: 0,67 puntu.
- Mahainguru bakoitzeko: 0,67 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,33 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,67 puntu

f) Informatika-ezagutzak: (gehienez 2,67 puntu)

ZERBITZU-EGINKIZUNETAKO ESKATZAILEAK

Egindako zerbitzuak, kategoria honen azken lekualdatze-lehiaketako deialdiaren oinarrien arabera, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak abenduaren 3ko 5699/2009 Ebazpenaren bidez deitua (EHAA: 2009/12/29). [0,125 puntu/hileko 37,5 puntu gehienez].

Eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte egindako zerbitzuak zenbatuko dira.

- Euskera. Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak xedatutako irizpideen arabera, hala barne-sustapenerako nola zerbitzu-eginkizunetarako.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pertsonal Zuzendaritzara bidali beharko dute (Gurutzetako Plaza z.g. 48903 Barakaldo) Eskabideak aurkezteko epea **2014ko MAIATZAREN 23an** amaituko da (20 egun baliodun).

Lanpostua betetzeko, honako lehentasun-irizpideak hartuko dira aintzat, beti ere, ZITOGENETIKA ARLOAn eskatutako profila egiaztatu ondoren:

1. Aldi baterako barne-sustapenean dauden Gurutzetako U. Ospitaleko langileak
2. Zerbitzu-eginkizunetan dauden langileak
3. Aldi baterako barne-sustapenean dauden gainerako zerbitzu-erakundeetako langileak.

- 100 a 199 horas: 4 puntos.
- 200 o más horas: 5,33 puntos.

Cuando en las certificaciones de los cursos conste únicamente el número de créditos, la puntuación será de 0,67 puntos por crédito.

d) Actividades docentes (máximo 6,67 puntos).

- Docencia en programas oficiales de formación continuada (por cada hora): 0,03 puntos.

e) Actividades científicas y de difusión del conocimiento (máximo 6,67 puntos). Relacionados con el puesto funcional del destino solicitado.

- Por cada Ponencia: 1,33 puntos.
- Por cada Comunicación oral/Póster: 0,67 puntos.
- Por cada Mesa redonda: 0,67 puntos.
- Por cada Publicación (primer autor): 1,33 puntos.
- Por cada Publicación (otros autores): 0,67 puntos.

f) Conocimientos informáticos (máximo 2,67 puntos).

PARA LOS SOLICITANTES DE COMISION DE SERVICIOS

Servicios prestados, en los términos de las bases de convocatoria del último concurso de traslados de esta categoría convocado por Resolución 5699/2009, de 3 de diciembre, del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud (BOPV: 29/12/2009). [0,125 puntos/mes con un máximo de 37,5 puntos].

Se computará el tiempo de servicios reconocidos hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes

- Euskera. de conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 67/2003 de 18 de marzo de normalización del uso de euskera en Osakidetza, tanto para la promoción interna, como para la comisión de servicios.

PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:

En la Dirección de Personal del Hospital Universitario Cruces (Pza. de Cruces, s/n, 48903 BARAKALDO), finalizando el plazo de presentación el día **23 de MAYO de 2014** (20 días hábiles).

La prioridad para la cobertura del puesto, siempre que se acredite el perfil requerido en el AREA DE CITOGENETICA, será la siguiente:

1. Personal del Hospital U. Cruces en promoción interna temporal.
2. Personal en Comisión de Servicios.
3. Personal del resto de Organizaciones de Servicios en promoción interna temporal.

**ESKABIDEAREKIN
BEHARREKOAK:****BATERA****AURKEZTU**

- Titulazioa eta aipatutako merituak. (Gurutzetako U. Ospitaletik kanpoko pertsonalak curriculumaren kopia bat aurkeztuko du.)
- Egindako zerbitzuen ziurtagiria (baldin eta Osakidetza aitortu ez baditu).
- Euskararen ezagutza egiaztatzeko titulua. (Curriculum Vitae programa korporatiboan sartuta ez badago).
- ZITOGENETIKA arloko lanpostuan jarduteko eskatutako profilari dagozkion egiaztagiria (Ikastaroak; hitzaldiak; argitalpenak; Zitogenetika arloan egindako zerbitzuen frogagiriak- zerbitzuberu/atalburu/gainbegiraleek sinatuak- denbora eta eginkizunak adieraziz; bai eta lanpostuan jarduteko nabarmentzekoak izan daitezkeen beste edozein ere.) **Nahitaezkoa izango da 9 hilabetetik gorako lan-erperientzia edukitzea, behar bezala egiaztaturik.**

BALORAZIO-BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da izangaiak ebaluatu eta Zitogenetika arloko lanpostuaren eginkizunak gauzatzeko beharrezko ezagutza teknikoak aztertze aldera.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

DOCUMENTACIÓN A APORTAR JUNTO CON LA SOLICITUD:

- Titulación y méritos alegados. (Personal de fuera del Hospital U. Cruces, entregar una copia de currículum)
- Certificación de servicios prestados. (Salvo que ya estuvieran reconocidos por Osakidetza).
- Titulación acreditativa del conocimiento de euskera. (Excepto si estuviera incluida en el programa corporativo de curriculum vitae).
- Documentación justificativa del perfil requerido para el puesto del Área de 'CITOGENETICA (Cursos, ponencias, publicaciones, certificados de Jefes de Servicio/Sección/Supervisoras de haber prestados servicios en el área de Citogenética, especificando periodo y funciones, así como cualquier otro que resulte relevante para el desempeño del puesto.) **Se requiere experiencia documentada superior a 9 meses.**


COMISION DE VALORACION:

Se constituirá una Comisión de Valoración, para la evaluación de los candidatos, y el análisis de los conocimientos técnicos adecuados para el desempeño de las funciones para el puesto del Área de Citogenética.

RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN:

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Gurutzeta-Barakaldon, 2014ko apirilaren 24an
En Cruces-Barakaldo, a 24 de abril de 2014



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES
PERTSONAL ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

Iz./Fdo: MAITANE ARRIZABALAGA CALZACORTA
PERTSONAL ZUZENDARIA / DIRECTORA DE PERSONAL

Zuzendari Gerenteak otsailaren 18ko 249/2013 Ebazpenaren bidez emandako eskuordetzaz baliaturik
Por delegación, mediante Resolución 249/2013, de 18 de febrero, del Director Gerente

IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI-TAULETAN JARRIKO DA 2014ko APIRILAREN 29an
PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DÍA 29 DE ABRIL DE 2014